

AUTOEBALUAZIO ARIKETA

Galdera bakoitzean, seinala ezazu zein den erantzun zuzena. Kasu guztietan, erantzun zuzena bakarra da.

1. Auditoriaren egiaztapen lanen helburua zera da:
 - a) Balantzea ulergarria den ala ez aztertzea.
 - b) Urteko kontuek enpresaren irudi fidela erakutsi dezatela egiaztatzea.
 - c) Egintza kontableek egi absolutua erakusten duten ala ez aztertzea.

2. Kontuen auditoria, gaur egun, hurrengo arauetan erregulatuta dago:
 - a) 1984.ko apirilaren 10eko, 84/253/CEE, Direktiba (VIII Direktiba).
 - b) Uztailaren 12ko 19/1988, Legea, kontuen auditoriari buruzkoa.
 - c) Uztailaren 1eko 1/2011 Dekretu Legegilea, kontuen auditoriari buruzkoa.

3. Espainiako auditoreen korporazio profesionalak hurrengoak dira:
 - a) REA+REGA Auditores eta ICJCE.
 - b) ICAC eta ROAC.
 - c) RLAC, LAC eta ICJCE .

4. Sozietate batek auditore bat kontratatu behar duenean hurrengo auditoreen artean aukeratu beharko du:
 - a) ROAC-en inskribatuta daudenen artean.
 - b) ICJCE-eko kide diren auditoreen artean.
 - c) Auditoreen Korporazio guztietako kideen artean.

5. Auditore batek Balantzea bakarrik aztertzen duenean,
 - a) Urteko kontuen auditoria bat egiten ari da.
 - b) Beste finantza egoera edo dokumentu kontableen auditoria bat egiten ari da.
 - c) Ez du auditoria bat egiten, auditoreek egiten dituzten beste lan batzuk baizik.

6. Urteko kontu bateratuen auditoria egiteko auditore bat hurrengo organoek izendatzen dute:
 - a) Taldeko sozietate guztien bazkideen batzar nagusi batek
 - b) Menperatutako sozietate bateko batzar nagusiak
 - c) Sozietate menperatzailearen batzar nagusiak

7. Auditoreak bere iritzia ematen duenean, hurrengo aspektuez emango du bere iritzia:
 - a) Urteko kontuek irudi fidela erakusten duten ala ez eta urteko kontu horiek eta gestio txostena bat datozen.
 - b) Ebidentzia nahikoa eta egokia lortzeko ezintasuna egon den eta urteko kontuak eta gestio txostena bat datozen.
 - c) Urteko kontuetan akats materialak dauden eta urteko kontuak eta gestio txostena bat datozen.

8. Auditoria txostena ezingo dute sinatu:
 - a) Auditore jardunlariek ezta jardunlari ez direnek.
 - b) Ez jardunlariek eta beste baten kontura zerbitzuak prestatzen ari direnek.
 - c) Ez jardunlariek bakarrik.

9. Etengabeko prestakuntza egiteko obligazioa dute:
 - a) Auditore jardunlariek bakarrik.
 - b) Jardunlariek, ez jardunlariek eta hirugarrenentzat zerbitzuak prestatzen daudenek.
 - c) Jardunlariek eta hirugarrenentzat zerbitzuak prestatzen daudenek.

10. Zure aitona finantza zuzendari bezala ari den enpresan auditore izateko eskaini dizute eta zuk onartu egin duzu ez baitzaude bateraezintasun egoera batean.
 - a) Egia
 - b) Gezurra

11. Zure lehengusua administratzaile bezala ari den enpresan auditore izateko eskaini dizute eta zuk onartu egin duzu ez baitzaude bateraezintasun egoera batean.
 - a) Egia
 - b) Gezurra

12. Orain dela hiru urte arte telefonista moduan enplegatua izan zinen enpresa batean eta orain bertako auditore izatea eskaini dizute eta zuk onartu duzu ez duzulako bateraezintasunik.
 - a) Egia
 - b) Gezurra

13. Orain dela hiru urte arte kontabilitatea eraman zenion enpresari, auditorea izendatzea galdatzen zaio eta zuri eskaini dizute auditore izatea. Zuk onartu egin duzu ez baituzu bateraezintasunik.
 - a) Egia
 - b) Gezurra

14. Zure osaba administrazio kontseiluko kide bezala ari den enpresa batean auditore izatea eskaini dizute eta zuk onartu duzu ez baitzaude bateraezintasun batean.
 - a) Egia
 - b) Gezurra

15. Orain dela lau hilabete arte telefonista bezala aritu izan zinen enpresan, auditore bezala aritzeko eskaini dizute eta zuk onartu egin duzu ez baitzaude bateraezintasun egoera batean.
 - a) Egia

- b) Gezurra
16. Enpresa baten auditore izatea eskaini dizute eta enpresa horrek menperatzen duen enpresa batean zuzendari kargua daukazu. Zuk kargua onartu duzu ez baitzaude bateraezintasun egoera batean.
- a) Egia
b) Gezurra
17. Zure koinatua (zure senarraren anaia) finantza zuzendaritza lanak egiten ari den enpresa batean auditore izatea eskaini dizute. Zuk kargua onartu duzu ez baitzaude bateraezintasun egoera batean.
- a) Egia
b) Gezurra
18. Orain dela sei hilabete enpresa bati sukurtsal bat baloratu zenion eta orain auditore kargua eskaini dizute. Zuk kargu hori onartu egin duzu ez baituzu bateraezintasunik.
- a) Egia
b) Gezurra
19. Burtsan kotizatzen duten enpresa batean auditore kargua eskaini dizute. Orain dela aste batzuk zuzendari komertzialaren hautaketan parte hartu zenuen. Zuk kargu hori onartu egin duzu ez baituzu bateraezintasunik.
- a) Egia
b) Gezurra
20. Hurrengo zirkunstantziek enpresa bat ikuskatua izatera bihurtzen dute:
- a) Obligazioak jaulkitzen dituzten enpresak
b) Sozietate Anonimo guztiak
c) Finantza bitartekaritzan aritzen diren enpresak
d) a) eta b) zuzenak dira
e) a) eta c) zuzenak dira.
21. Sozietate baten urteko kontuak administratzaile eta bazkideek bakarrik erabiltzen dituzte.
- a) Egia
b) Gezurra
22. Kontuen auditorea da:
- a) Auditoreen erregistro ofizialean inskribatuta dagoena bakarrik.
b) Auditoreen Korporazio profesional bateko kide dena bakarrik.
c) Enpresen administrazio eta zuzendaritza ikasketak egin ondoren, auditore izateko azterketak egin dituen pertsona bat bakarrik.

23. Auditorearen erantzukizuna:
- Auditoreak, ikuskatutako enpresari eta hirugarrenei egindako kalteez, modu proportzional batean erantzungo du eta ez zaio erreklamatu ikuskatutako enpresa berak edo hirugarrenek sortutako kalteengatik.
 - Auditoreak urteko kontuetan egon daiteken edozein akats aurkitu beharra dauka eta horren erantzule izango da.
 - Erantzukizun zibila izateko beharrezkoa izango da obligazio bat urratzen duenean doluarekin egin dezala.
24. Informazioa eskatzeko eskubide-obligazioa:
- Auditoreak, ikuskatzen ari den enpresari behar duen informazio guztia eska diezaioke inolako mugarik gabe.
 - Ez badu behar duen informazioa eskatzen iritzi tekniko okerra jaulkiz arau-hauste larri bat egingo du.
 - Ikuskatutako enpresak ez badio auditoreari honek eskatu dion informazioa ematen eta auditoreak uste badu egon daitezken akatsak materialak izateaz gain urteko kontuengan, oro har, eragina izan dezaketela, salbuespendun iritzi bat emango du.
25. Auditorea kontratatzeke epea:
- Auditorea lehenengo aldiz kontratatzen denean, gutxienez, hiru urterako eta, gehienez, 10 urterako kontratatua izango da.
 - Lehenengo kontratua bukatzen denean, berriro hautatua izan daiteke baino, gehienez, hiru urterako eta, ondoren, auditorez aldatu behar da.
 - Interes publikodun entitateak ikuskatzen dituenean auditoreak, zazpi urte igaro ondoren, auditoria txostena sinatu duen auditorea aldatu egin behar da.
26. Fidantza:
- Auditoria sozietateak fidantza bat jarri behar du, berak sortutako kalteez erantzuteko eta bere bazkideek beren lan indibidualetan egindako kalteez erantzuteko.
 - Urte batean auditoria lanengatik 400.000 euro fakturatu baditu, hurrengo urtean, 330.000 euroko fidantza jarri beharko du.
 - Erantzukizun penalari aurre egiteko jarri behar du fidantza auditoreak.
27. Auditorearen obligazio batzuk:
- Auditoreak sekretu obligazioa hausten badu, erantzukizun zibila izateaz gain, arau-hauste larri bat egingo du.
 - Auditoreak auditoria egitean lortu duen informazio konfidentziala bere interes ekonomikoen onurarako erabiltzen badu, erantzukizun zibila izateaz gain, arau-hauste oso larri bat egingo du.
 - Auditoreak, egindako auditoriari buruz dituen dokumentu guztiak, lan paperak barne, 6 urtetan gorde eta zaindu beharko ditu.

28. Kontabilitate eta Kontu ikuskaritza Institutua (KKII) eta auditoreen korporazio profesionalak:
- a) Prestakuntza jarraituaren kurtsuak KKII-k eta Korporazioek ematen dituzte.
 - b) Prestakuntza teorikoaren eta azterketa teorikoaren lehen zatiaren dispensak KKII-k ematen ditu.
 - c) Kontrol tekniko eta kalitate kontrola, korporazioen eskuduntza dira.
29. Auditore eta auditoria sozietateak:
- a) Auditore batek bere obligazioak ez betetzeagatik sortutako kalteez erantzun behar du eta KKII izango da erantzukizun hori galdatuko diona.
 - b) NIA-k KKII-ren Aldizkari ofizialean argiratu ondoren indarrean sartzen dira.
 - c) Nahiz eta NIA berriak indarrean sartu diren, lehendik Espainian zeuden arau tekniko guztiak indarrean jarraitzen dute.
30. Auditorearen ordainsaria:
- a) Auditorearen ordainsaria auditoria lanak egin aurretik finkatu beharko da eta, geroago, administratzaileek auditorea atsegin badute, ordainsari hori igo dezakete.
 - b) Auditoreari zenbait urterako kontratatzen zaionean, lehenengo urterako ordainsari bat finkatuko da eta hurrengo ekitaldietarako irizpide batzuk.
 - c) Onartua dago, auditore batek, enpresa bati auditoria zerbitzuak merke eskaintzea (kostuen azpitik), enpresa horri beste lan batzuk egitea lortzeko asmoz, eta badaki beste lan horiek egiteagatik gehiago kobratuko duela.